

dizkiogun oharren artean, bakoitzaren jatorriaren gutxi gorabeherako data jarriko dugu, batzu ez daudelako agiri bidez egokiro egiaztatuta.

4 **Bilduduma honetan jarraitutako erizpidea**

Santuaren idazlanen argitaratzaile ezberdinek, ordena eta erizpide desberdinak erabiliz argitaratu izan dituzte. Zuzenena, olerkiak konposaketaren arabeko ordena kronologikoan aurkeztea litzateke; baina, olerki batzuren data zehatzik ziurtasunez ez jakiteak sortzen duen eragozpenaz egiten dugu topo.

Batzuk, beraren olerkiak guregana helerazi dituzten eskuskribuen garrantziaren erizpidea erabili izan dute, horrela, adibidez, Sanlúcar de Barrameda (S) deritzanaren ms., bertako testua Joan Gurutzekoak berberak zuzendua izan zela; gero Granadako (G) eta Jaeneko (J) eta abarreko eskuskribuak datoz.

Gure eskuetara heldu diren olerkiak gutxi izanik eta oharretan olerki bakoitzaren datu historikoak eskaintzen direnez, olerkiak jenero poetikoen arabera, jenero bakoitzean kronologia errespetatuz: a. Poemak edo Kantikak, b. Erromantzeak, c. Koplak edo glosak, d. «Letrilla»k, aurkeztea iruditu zait egokien.

J. U.

I

[CANTICO ESPIRITUAL]

Canciones entre el alma y el esposo*

I

[MAITE-KANTAK]

Anima ta Senarraren arteko maite-kantak*

* Ik. 460-473.orr.

II

[LA FONTE]

**Cantar del alma que se huelga
de conocer a Dios por fe***

Que bien sé yo la fonte que mana y corre,
aunque es de noche.

- 1 Aquella eterna fonte está escondida,
que bien sé yo do tiene su manida,
aunque es de noche¹.
- 2 Su origen no lo sé, pues no le tiene,
más sé que todo origen de ella viene,
aunque es de noche
- 3 Sé que no puede ser cosa tan bella,
y que cielos y tierra beben della,
aunque es de noche.
- 4 Bien sé que suelo en ella no se halla,
y que ninguno puede vadealla,
aunque es de noche.
- 5 Su claridad nunca es escurecida,
y sé que toda luz de ella es venida,
aunque es de noche.

II

[ITURRIA]

**Animaren leloa, Jainkoa siñismenez
ezagutzeaz poz dalako***

Ba dakit nik ongi laster darion iturri,
gauetz izanarren.

Gordean egonik ere betiko iturri,
ba dakit ongi non dun bere gordegi,
gauetz izanarren.

Ez dakit non dun sorburu, ez dulako,
bai ordea an sortzen direla jatorri
oro,
gauetz izanarren.

Ba dakit ederragorik ezin dala,
ta zeru ta lurak andik dedatela,
gauetz izanarren.

Ongi dakit argan ez dala ondorik,
iñork ezin dula ubide-egin,
gauetz izanarren.

Aren argia ez da iñoiz itzaltzen,
ba dakit argi oro an dala sortzen,
gauetz izanarren.

* Gaztelu-k itzulia: *Musika ixilla*, 218-221.

Esk. S [216-217.] orr.; G. [502.] orr.; Valladolid-eko Leikaime-Karmeldarren artxiboan (21. 68-70), etab. Toledo-ko espetxean 1578.ean eginiko olerkia.

¹ *Esk.* G-n jarraiko ahapaldia eransten da: (L. Akesolok itzulia):

En esta noche oscura de esta vida
qué bien sé yo por fe la fonte frida
aunque es de noche.

Bizi onetako gau illun baltzekoan
fedez dakust iturri otza non dagoan,
naiz eta izan gaua.

- 6 Sé ser tan caudalosos sus corrientes,
que infiernos, cielos riegan y las gentes,
aunque es de noche.
- 7 El corriente que nace desta fuente
bien sé que es tan capaz y omnipotente,
aunque es de noche.
- 8 El corriente que de estas dos procede
sé que ninguna de ellas le precede,
aunque es de noche².
- 9 Aquesta eterna fonte está escondida
en este vivo pan por darnos vida,
aunque es de noche.
- 10 Aquí se está llamando a las criaturas,
de esta agua se hartan, aunque a oscuras,
porque es de noche.
- 11 Aquesta viva fuente que deseo
en este pan de vida yo la veo,
aunque es de noche.
- Ba dakit aren urbizi ain aundi direla,
suleze, zeru ta jende ditula urezta,
gauzez izanarren.
- Iturri ontatik sortu oi dan jario
ba dakit ain gai dala, oroz gañeko,
gauzez izanarren.
- Ba dakit, biotatik darion joaira
bata bestearen aurreko ez dala,
gauzez izanarren.
- Betiko iturri au, bizia emateko,
ogi bizi ontan gorderik dago,
gauzez izanarren.
- Emen ari zaie gizakiei deika,
illunez arren, ur ontan ase dira,
gauzez dalako.
- Ain gogoko zaidan ur bizi au
ogi bizigarri ontan bai dakust,
gauzez [izan]arren.

² Esk. G-n jarraiko ahapaldia eransten da: (L. Akesolok itzulia):

Bien sé que tres en sola una agua viva
residen, y una de otra se deriva,
aunque es de noche.

Ondo dakit Irurak batean direla,
bata besteaganik zuzen datoztela,
naiz eta izan gaua.

III

[NOCHE OSCURA]

**Canciones del alma que se goza de haber
llegado al alto estado de la perfección,
que es la unión con Dios, por el camino
de la negación espiritual.**

Del mismo autor

- 1 En una noche oscura,
con ansias, en amores inflamada,
¡oh dichosa ventura!,
salí sin ser notada,
estando ya mi casa sosegada.
- 2 A oscuras y segura
por la secreta escala, disfrazada,
¡oh dichosa ventura!,
a oscuras y en celada,
estando ya mi casa sosegada.
- 3 En la noche dichosa,
en secreto que naide me veía,
ni yo miraba cosa,
sin otra luz y guía
sino la que en el corazón ardía.
- 4 Aquésta me guiaba
más cierto que la luz del mediodía,
adonde me esperaba
quien yo bien me sabía,
en parte donde naide parecía.

III

[GAU ILLUNA] (A)*

**Animaren koplak: bere buruari
uko
egiñ-eta poz baita Jaikoarekin bat-
-egitean betekundea jo dulakoz**

Gauaro illun batean
yoranez, maitez sukarrean,
—oi ene zoriona!—
ixil irten nintzan,
nere etxea zegola pakean.

Illunaldiz, mozolo,
zurubi gordeaz uste onean,
—oi ene zoriona!—
illunaldiz, kirika,
nere etxea zegola pakean.

Gauaro doatsuan,
gordeka, iñor oar ez zalarik,
ezer ez nenkusala,
ez argi ez gidari
biotza sutan zeukana baizik.

Gau onek gida nindun
eguerdi-argiak baiñon obeki,
jakiñ ere nik ongi
nekian Arengana,
bertan iñor ezpaitzan ageri.

III

[GAU ILLUNA] (B)*

Nere zoriona! – Gau illunean,
maitez su-garretan, – iñor oarkabe
atera nintzan, – etxe-barruna
iabal neukanean.

Illun, bildur gabe, – zurubi gordetik
mozorro-iantzian, – illun, zelatan,
etxe-barrua – iabal neukanean.

Gau doatsu artan – itxil, iñork ere
ez nindekusala, – ezer ez nik ere,
nere biotzeko – argia baizik
gidari ez nula.

Au nendun gidari – eguerdi-argia
baiñon areago, – nik nekin tokian
zegen Arengana, – iñortxo ere
ageri etzala.

* *Musika ixilla*, 172-175 (Gaztelu, A); 177-178 (Orixe, B).
Olerti 2 (1960) 227-228 (Gaztelu); Olerti 3 (1961) 209 (Orixe).
Esk. S. [210-211.] orr.

Andalusian, Toledo-ko espetxetik ihes egin eta hilabete gutxitara, 1578.aren amaiera eta 1579.aren hasiera artean eginiko olerkia.

- 5 ¡Oh noche que guiaste!
¡Oh noche amable más que el alborada!
¡Oh noche que juntaste
Amado con Amada¹,
Amada en el Amado transformada!
- 6 En mi pecho florido,
que entero para él sólo se guardaba,
allí quedó dormido,
y yo le regalaba,
y el ventalle de cedros aire daba.
- 7 El aire de la almena,
cuando yo sus cabellos esparcía,
con su mano serena
en mi cuello hería,
y todos mis sentidos suspendía.
- 8 Quedéme y olvidéme,
el rostro recliné sobre el Amado,
cesó todo y dejéme,
dejando mi cuidado
entre las azucenas olvidado.

¹ *Musika ixilla-n*: Amada con amado.

O gau biderakusle,
argi-urratzez gaindi atsegin,
maiteak alkargana
zenituna bat egin,
Maiteñoa bat Laztanarekin!

Nere galtzar-lorean,
Arentzat oso baineukan gorderik,
loak artu zun gozaro,
nik Ari maite egiñik,
ta izai-ostrailak aize emanik.

Nik Aren adats-izpi
orraztu bitartean, dorreko
aizeak lepoan guri
joaz, zentzuak oro
lillura jarri zizkidan oso.

Ba negon egon, t'antzi,
Maiteagan etziñik betarte;
oro geldi, eta ni
zitori lorez arte
onean nindagon ardura gabe.

Gau doatsua! – argia baiño
maitagarriago – zitzaidan gaua!
Artan bildu ziran – Maite ta Laztan,
Laztana Maite - biurtzen zala.

Lore-galtzar ontan, – oso osorik
Arentzat baineukan, – lo geldi zitzaidan;
maite egiten nion; – izai-ostoak
aize zegion.

Nik Aren adatsak – orraztu artean,
dorreko aizeak – esku legunez
lepoan ni ioaz, – zentzuak oro
lotu zizkidan.

An geldi nintzan, – nitaz aztu nintzan;
burua makurtuz – Aren galtzarrean.
Oro geldi zegion – An nere kezka
egotzi nendun – lilien artean.

IV

[UN PASTORCILLO]

Otras canciones a lo divino (de el mismo autor) de Cristo y el alma

- 1 Un pastorcico solo está penado,
ajeno de placer y de contento,
y en su pastora puesto el pensamiento,
y el pecho del amor muy lastimado.
- 2 No llora por haberle amor llagado,
que no le pena verse así afligido,
aunque en el corazón está herido;
mas llora por pensar que está olvidado.
- 3 Que sólo de pensar que está olvidado
de su bella pastora, con gran pena
se deja maltratar en tierra ajena,
el pecho del amor muy lastimado.
- 4 Y dice el pastorcico: ¡Ay, desdichado
de aquel que de mi amor ha hecho ausencia,
y no quiere gozar la mi presencia,
y el pecho por su amor muy lastimado!
- 5 Y a cabo de un gran rato se ha encumbrado
sobre un árbol, do abrió sus brazos bellos,
y muerto se ha quedado asido dellos,
el pecho de el amor muy lastimado.

IV

[ARTZAITXOA] (A)*

*Kristo ta animaren Jainkorako beste
zenbait kanta**

Artzai gaixoak min du bakar,
pozik gabe, atsekaberik,
artzaineska gogoan emanik,
biotza zauriz aren maitetan.

Ezta minduru maiteak zauritzez,
orrek eztio damurik ematen,
biotza zaurituz edukiarren;
aztu dulakoz ari da negarrez.

Artzaineskak azturik daukanaz
gogora utsez, atzerrian
mingarri nai du gaitz-eraman,
biotza zauriz aren maitetan.

Onela diño: Ai ene!, zoritxar
ni maitatzea nai eztunari,
nigandik alde dabillanari,
biotza zauriz aren maitetan!

Andik luzaro zugaitz batean
besoak eda ditu ederrik,
eta bertan geldi da illotzik,
biotza zauriz aren maitetan.

IV

[ARTZAITXOA] (B)*

Artzaitxo bat bakar dago ta itunik,
atsegin eta pozik ezean,
gogoa tinki bere artzainsan,
bularra maitez oso zauriturik.

Maiteminduez ez dago negarrik,
ez du ta atsekabeak samintzen,
biotza zauritan daukanarren;
baiña aaztua danentz, dago larri.

Bere neska aratzak daukala aazturik
gogora utsez, oñaze gorritan
naita, zigorpetzen da atzerrian,
bularra maitez oso zauriturik.

Ta artzaitxoak dio: bai errukarri
nere maitetik okertu dana,
ta ni ikusiz goza nai ez duna
ta bularra aren maitez zauriturik!

Ta aldi luze ondoren, zuaitz bati
gaiña ar dio, ta besa betean,
illik lotu da, aitatik dilindan,
bularra maitez oso zauriturik.

* *Musika ixilla*, 222-223 (Gaztelu, A); Olerri 1981, 75-76 (Inazio Berakoetxea, B).

Esk. S. [216.] orr.

Data ezezaguneko olerkia; Granadan 1584.aren azkenaldian egina izan daiteke. Izenburuak adierazten duen bezala («*a lo divino*» itzulia) Santuak, eradokimen-iturri, bertsiio ezberdinak zituela ezagutu eta helerazitako beste olerki bat izan zuen.

V

[LLAMA DE AMOR VIVA]

**Canciones del alma en la íntima comunicación de unión de amor de Dios.
(Del mismo autor)**

- 1 ¡Oh llama de amor viva,
que tiernamente hieres
de mi alma en el más profundo centro!
Pues ya no eres esquivia,
acaba ya, si quieres;
¡rompe la tela de este dulce encuentro!
- 2 ¡Oh cauterio suave!
¡Oh regalada llaga!
¡Oh mano blanda! ¡Oh toque delicado,
que a vida eterna sabe,
y toda deuda paga!
Matando, muerte en vida la has trocado.
- 3 ¡Oh lámparas de fuego,
en cuyos resplandores
las profundas cavernas del sentido,
que estaba oscuro y ciego,
con extraños primores
calor y luz dan junto a su querido!
- 4 ¡Cuán manso y amoroso
recuerdas en mi seno,
donde secretamente solo moras,
y en tu aspirar sabroso
de bien y gloria lleno,
cuán delicadamente me enamoras!

V

[MAITE-SUGAR BIZI] (A)*

**Animaren kantak, Jaikoarekin
maitez bat-egite aldiko gozoan***

Nere barne-muñetan
samurki zauri nuzun
maite-sugar bizi leuna!
ter-ter jo nuzu eta
urra, ala nai izanez,
elkartze gozo onen euna!

Oi errealdi mee!
zauri ezti bai ezti!
eskugain legun, ikutu samur,
zeru-zantzu duena!
Zorrak oro ordainduz,
eriotza bizi didazu biur!

Oi suzko argi-mutil,
zuen diztiraetan
zentzu-leze sakon illunak,
ipi-apa bitxitan,
argi ta bero dauzka
airigarri ondoan Lagunak!

Kolko ontan soillik
ixilpe zagozan orrek
maiteki, emaro, daragidazu,
t'arnas egiñik gozaro
onez gañezka, eztitan,
mamiki maitemintzen bainazu!

V

[MAITE-SUGAR BIZI] (B)*

Nere animaren – muñik barnenean
xauritzen nuzun – maite-sugar bizi!
zuzen io bainuzu, – erre nazazu bein!
urra, oldar ontan, – bizi onen mintza!

Oi erretze guri! – zauritze kutun,
eskugain legun! – ukitu mehe!
zor oro berdinduz – zeru-usai baitu
eriaz bizia emaiten – didazu!

Oi su-argi-ontzi, – argiz ta beroz
zentzuen leize – beltz ilunenak
eder eta garai, – argitzen baititu
Maitearekin!

Bakarrik baitzaude - nere galtzarrean,
emeki, maitaro – iratzarten nuzu.
Ta Zure arnas – zerutar orrek
igurtzi naunean, – zeinēn goxoki
maitemintzen nuzun!

* *Musika ixilla*, 212-215 (Gaztelu, A), 216 (Orixe, B.). Olerti 3 (1961) 210 (Orixe); Olerti 3 (1961) 286 (Gaztelu).

Esk. S. [211.] orr.

1584. urte inguruan idatzitako olerkia.

VI

[ROMANCES]*

1.º

Romance sobre el evangelio «In principio erat Verbum», acerca de la Santísima Trinidad

En el principio moraba
el Verbo, y en Dios vivía,
en quien su felicidad
infinita poseía.

El mismo Verbo Dios era,
que el principio se decía.
El moraba en el principio,
y principio no tenía.

El era el mesmo principio;
por eso de él carecía.
El Verbo se llama Hijo,
que de el principio nacía.

Hale siempre concebido
y siempre le concebía.
Dale siempre su substancia
y siempre se la tenía.

Y así, la gloria del Hijo
es la que en el Padre había;
y toda su gloria el Padre
en el Hijo poseía.

VI

[ERROMANTZEAK]*

1

«In principio erat Verbum» ebanjelioaren arabera Hirutasun Santuaz erromantzea

Hasieran bazen Hitza
ta Jainkoagan bizi zen
harengan zorionaren
goren-gorenean baitzen.

Hitza bera Jainkoa zen,
hasiera deritzana.
Hasieratik bizi da,
hasiera gabe izana.

Hasiera bera izanik
hasiera gabekoa.
Hitzari Seme deritzo
hasieratik jaioa.

Betidanik sortu izan du
eta beti ari da sortzen.
Beti beretik emanez,
inoiz ere ez agortzen.

Beraz, Semearen aintzak
Aitagau du izatea;
ta Aitak Semeagan du
bere aintzaren betea.

* Luis Baraiazarrak itzuliak. Argitaratu gabe.

Esk. S [217-225.] orr.

Toledo-ko espetxean, 1578.ean eginak. Hirutasun Deunari eta Gizakundeari buruzko bederzti erromantze dira. Bertso jariokor eta errazak, koplari herritarra harako doinutxo zekin asonantzeko errepikapen aierukorrez imitatzen dutenak dira. (Behar bada, ahapeka abesteko erabiliak...).

Como amado en el amante
uno en otro residía,
y aquese amor que los une
en lo mismo convenía
con el uno y con el otro
en igualdad y valía.

Tres Personas y un amado
entre todos tres había;
y un amor en todas ellas
y un amante las hacía,
y el amante es el amado
en que cada cual vivía;
que el ser que los tres poseen
cada cual le poseía,
y cada cual de ellos ama
a la que este ser tenía.

Este ser es cada una
y éste sólo las unía
en un inefable nudo
que decir no se sabía.

Por lo cual era infinito
el amor que las unía,
porque un solo amor tres tienen,
que su esencia se decía;
que el amor, cuanto más uno,
tanto más amor hacía.

2.º

De la comunicación de las Tres Personas

En aquel amor inmenso
que de los dos procedía,
palabras de gran regalo
el Padre al Hijo decía,
de tan profundo deleite,
que nadie las entendía;
sólo el Hijo lo gozaba,
que es a quien pertenecía.

Elkarrengan bizi dira
maiteminduen antzera
biltzaile den maitemina
biengan izanik bera,
batagan nahiz besteagan
joz berdintasun betera.

Hiru Pertsona, maite bat:
horra hor hiru denera.
Maite bera guztiengan,
maitaleak gauzatuak,
maitale eta maitea
biak batez osatuak;
bakoitzak beragan baitu
hirurek duten osoa
eta bakoitzak maite du
izaki hartan jaso.

Izaki hau bakoitza da,
hark soilik bildurik zinez
korapilo harrigarri
adierazi ezinez.

Beraz, neurrigabea zen
maitasun-lokarri zena:
hiruk maitasun bakarra,
haien muina zeritzana;
maitasunak bil-bilduan
baitu goren bere izana.

2

Hiru Pertsonen elkartasuna

Bien jatorri zuen
maitasun neurrigabea
Aita Semeari mintzo
erarik goxoenean,
inork jaso ezineko
miragarritzko elean;
Semeak soilik gozatzu
beroni egin hitzean.

Pero aquello que se entiende desta manera decía:

—Nada me contenta, Hijo, fuera de tu compañía.

Y si algo me contenta, en ti mismo lo quería.

El que a ti más se parece a mí más satisfacía;

y el que en nada te semeja en mí nada hallaría.

En ti sólo me he agradado, ¡oh vida de vida mía!

Eres lumbre de mi lumbre.
Eres mi sabiduría;
figura de mi substancia
en quien bien me complacía.

Al que a ti te amare, Hijo,
a mí mismo le daría,
y el amor que yo en ti tengo
ese mismo en él pondría,
en razón de haber amado
a quien yo tanto quería.

3.º

De la Creación

—Una esposa que te ame,
mi Hijo, darte quería,
que por tu valor merezca
tener nuestra compañía
y comer pan a una mesa
de el mismo que yo comía,
porque conozca los bienes
que en tal Hijo yo tenía,
y se congracie conmigo
de tu gracia y lozanía.

—Mucho lo agradezco, Padre
—el Hijo le respondía—;
a la esposa que me dieres
yo mi claridad daría,

Baina ulergari zenak
ez zioen haxe baizik:
—Seme, ez dut nik neuk pozik
zure konpainian ezik;
eta zerbait laket bazait
zugan nuke maitatuko.
Zure irudiko dena
hura nik ere gogoko;
zure antzik ez duenak
ezer ez du enekiko.
Zugan soilik dut atsegin
ene bizi muin-muineko!

Ene argiaren argi,
zu ene jakituria,
biziki pozten ninduen
ene izate-iduria.

Neurez hornituko nuke,
Seme, zu maite zaituna
eta harengan jarriko
nuke gure maitasuna,
maite izan zuelako
hark ene maite kutuna.

3

Kreazioa

—Emazte maitale suhar,
Seme, nahi nizuke eman,
zure balioagatik
izan gaitzan gu beragan,
eta neure ogi bera
mahai berean duke jan,
nik Semearengan dudan
altxorra ezagut dezan,
eta zu ederretsirik
kontent liteke niregan.

—Eskertzen dizut nik, Aita,
—zion Semeak erantzun—;
emazte horri emango
diot neure argitasun,

para que por ella vea
cuánto mi Padre valía,
y cómo el ser que poseo
de su ser le recibía.

Reclinarla he yo en mi brazo,
y en tu amor se abrasaría,
y con eterno deleite
tu bondad sublimaría.

4.º

Prosigue

—Hágase, pues —dijo el Padre—,
que tu amor lo merecía.
Y en este dicho que dijo,
el mundo criado había,
palacio para la esposa,
hecho en gran sabiduría;
el cual en dos aposentos,
alto y bajo, dividía.

El bajo de diferencias
infinitas componía;
mas el alto hermosteaba
de admirable pedrería,
porque conozca la esposa
el Esposo que tenía.
En el alto colocaba
la angélica jerarquía;
pero la natura humana
en el bajo la ponía,
por ser en su compostura
algo de menor valía.

Y aunque el ser y los lugares
de esta suerte los partía,
pero todos son un cuerpo
de la esposa que decía;
que el amor de un mismo Esposo
una esposa los hacía.

argi bidez ikus dezan
ene Aitaren goitasun,
harengandik jaso baitut
neure barneko ondasun.

Neure baitan eratzanik
kiskal bedi zure sutan,
poz minez zure ontasuna
gorets dezan ordutan.

4

Jarraipena

—Hala biz —zioen Aitak—
zure maitasunagatik.
Ta sortu zuen mundua
esan zuen hitz hartatik,
maitearentzat jauregi
jakituriaz egina;
bi zatitan bereizia:
behealde eta gaina.

Behealdekoak zituen
hamaikatxo ñabardura,
goikoak, berriz, berekin
harribitxizko apaindura,
emazteak jakin zezan
nor zen Senar maitatia,
goialdean jarri zuen
aingeruen jerarkia;
behean atonduz, ordea,
gizakientzat tokia,
bere moldez ez zelako
hura bezain egokia.

Izaki eta tokiak
hala bereizirik ere,
emaztearen gorputza
dira denak betiere;
Senar berak maite-suaz
bihurtuz emazte bere.

Los de arriba poseían
 el Esposo en alegría,
 los de abajo en esperanza
 de fe que les infundía,
 diciéndoles que algún tiempo
 él los engrandecería,
 y que aquella su bajeza
 él se la levantaría,
 de manera que ninguno
 ya la vituperaría;
 porque en todo semejante
 él a ellos se haría,
 y se vendría con ellos,
 y con ellos moraría;
 y que Dios sería hombre,
 y que el hombre Dios sería,
 y trataría con ellos,
 comería y bebería;
 y que con ellos contino
 él mismo se quedaría
 hasta que se consumase
 este siglo que corría,
 cuando se gozaran juntos
 en eterna melodía;
 porque él era la cabeza
 de la esposa que tenía,
 a la cual todos los miembros
 de los justos juntaría,
 que son cuerpo de la esposa;
 a la cual él tomaría
 en sus brazos tiernamente,
 y allí su amor la daría;
 y que así juntos en uno
 al Padre la llevaría,
 donde de el mismo deleite
 que Dios goza, gozaría;
 que, como el Padre y el Hijo
 y el que dellos procedía
 el uno vive en el otro,
 así la esposa sería,
 que, dentro de Dios absorta,
 vida de Dios viviría.

Goikoak Senarrarekin
 bizi ziren poz-eztitan;
 behekoak, berriz, fedezko
 igurikatze bizitan,
 goratuko zituela
 esan baitzien egitan
 eta maila narras hura
 zuela altxa eraziko,
 ez zuela inork ere
 geroztik gutxietsiko;
 gauza guztitan kideko
 egingo baitzen haiekiko,
 eta haiengan murgilduz
 beraiekin zen biziko.
 Jainkoa gizaki egin
 eta gizakia Jainko,
 etxekotasun handitan
 ihardunez elkarrekiko;
 mahaikidetasun gozoan
 jan-edanean ariko,
 menderen mendetan bertan
 bizilekua jarriko,
 elkarrekin bildu arte
 soinu eztitan betiko.
 Hura zelako, izan ere,
 bere maitearen buru,
 zintzoen atalak hari
 lotzea zuen helburu,
 maitearen gorputzaren
 osagarri baititugu.
 Beso artean jasorik
 txit eztiki beragana,
 harengan isuri zuen
 bere maitasun dan-dana
 eta batasun estuan
 Aitarengana darama,
 Jainkoarengan gozatzuz
 honek duen gozamena.
 Beraz, Aita ta Semea
 ta hauengandik datorrena
 elkarren baitan direnez,
 emaztea da hurrena
 ahozabalik gozatzuz
 Jainko-bizitzaren barrena.

5.º

Prosigue

Con esta buena esperanza
que de arriba les venía,
el tedio de sus trabajos
más leve se les hacía;
pero la esperanza larga
y el deseo que crecía
de gozarse con su Esposo
contino les afligía;

por lo cual con oraciones,
con suspiros y agonía,
con lágrimas y gemidos,
le rogaban noche y día
que ya se determinase
a les dar su compañía.

Unos decían: ¡Oh si fuese
en mi tiempo el alegría!;
otros: ¡Acaba, Señor,
al que has de enviar envía!
Otros: ¡Oh si ya rompieses
esos cielos, y vería
con mis ojos que bajases,
y mi llanto cesaría!
¡Regad, nubes, de lo alto,
que la tierra lo pedía,
y ábrase ya la tierra
que espinas nos producía,
y produzca aquella flor
con que ella florecería!

Otros decían: ¡Oh dichoso
el que en tal tiempo sería,
que merezca ver a Dios
con los ojos que tenía,
y tratarle con sus manos,
y andar en su compañía,
y gozar de los misterios
que entonces ordenaría!

5

Jarraipena

Goitik adierazi zaien
hitzaren itxaropenak
arintzen zizkien lanen
unadura eta penak;
baina tristatzen zituen
Senarraganako minak
eta itxarote luzean,
hura gozatu ezinak.

Horregatik otoitz gartsuz,
antziz eta larriminez
arren egiten zioten
negar eta intzirinez
noizbait etor zekiela,
segidan lagun eginez.

Batzuk honela zioten:
«Garaikide gerta bekit!»
Hauek: «Igor zazu, Jauna,
igortzekoa jadanik!»
Haiek: «Ai, ikus bazintut
jaisten goiak urraturik,
ez nengoke, horraitio,
malko-iturri bihurturik!
¡Garasta goitik, hodeiak,
lurra egarriz baitago;
arantzatoki izan arren
lur idor hau lehenago,
orain erraiak irekiz
loratu bedi oparo!»

Beste batzuk honelatsu:
«Bai dohatsu garai hartan
bizi zena eta ikus
zezakeena berbertain;
bere eskuz ukitu ta
lagun izan edozertan,
eta gozatu ahal izan
haren misterioetan!»

6.º

Prosigue

En aquestos y otros ruegos
 gran tiempo pasado había;
 pero en los postreros años
 el fervor mucho crecía,
 cuando el viejo Simeón
 en deseo se encendía,
 rogando a Dios que quisiese
 dejalle ver este día.

Y así el Espíritu Santo
 al buen viejo respondía:
 —Que le daba su palabra
 que la muerte no vería
 hasta que la vida viese
 que de arriba descendía,
 y que él en sus mismas manos
 al mismo Dios tomaría,
 y le tendría en sus brazos
 y consigo abrazaría.

7.º

Prosigue la encarnación

Ya que el tiempo era llegado
 en que hacerse convenía
 el rescate de la esposa
 que en duro yugo servía,
 debajo de aquella ley
 que Moisés dado le había,
 el Padre con amor tierno
 desta manera decía:

—Ya ves, Hijo, que a tu esposa
 a tu imagen hecho había,
 y en lo que a ti se parece
 contigo bien convenía;
 pero difiere en la carne,
 que en tu simple ser no había.

6

Jarraipena

Arren bai arren eginez
 luzen joan zen denbora;
 baina azken urteetan
 garrak egin zuen gora.
 Simeon zaharrak barnea
 zuen esperantzaz gori,
 Jaunari eskatzen zion
 ikus zezala egun hori.

Eta Izpiritu Santuak
 agureari erantzun
 hitzematzen ziola ta
 arretaz zezala entzun:
 hil orduko ikusiko
 zuela jaisten bizia;
 izango zuela Jainko
 bera hartzeko grazia
 eta bere besoetan
 besarkatzeko zoria.

7

Gizakundearen jarraipena

Emaztea han bizi zen
 zama gaitzaren menpean,
 Moise-ren bidez eman zen
 legearen uztarpean.
 Eta hura askatzeko
 garaia bazenez gero,
 Aitak honela zioen
 bihotzetik samurkiro:

—Ikus, Seme, zure emazte
 zeure irudiko egina,
 ongi zegokion hari
 izatea zure dina;
 haatik —zukan ez baitzen—
 haragiz zen ezberdina.

En los amores perfectos
esta ley se requería:
que se haga semejante
el amante a quien quería,
que la mayor semejanza
más deleite contenía;
el cual, sin duda, en tu esposa
grandemente crecería
si te viere semejante
en la carne que tenía.

—Mi voluntad es la tuya
—el Hijo le respondía—,
y la gloria que yo tengo
es tu voluntad ser mía;
y a mí me conviene, Padre,
lo que tu Alteza decía,
porque por esta manera
tu bondad más se vería;
veráse tu gran potencia,
justicia y sabiduría;
irélo a decir al mundo
y noticia le daría
de tu belleza y dulzura
y de tu soberanía.
Iré a buscar a mi esposa,
y sobre mí tomaría
sus fatigas y trabajos,
en que tanto padecía;
y por que ella vida tenga
yo por ella moriría,
y sacándola de el lago,
a ti te la volvería.

Honetantxe datza, beraz,
maitasunaren betea:
maitalea maitearen
antz-antzeko egitea(n).
Kidetasunik gorenak
dakar plazerrik onena;
ezpaigabe emazteagan
haziz joango dena,
ikusiz haragiz ere
bere antzeko zarena.

Semeak erantzun zion:
Nik ez dut borondaterik
zurea baino besterik,
zure nahiaz bat izanik
nago ohorez beterik;
eta zuk esandakoa
egoki datorkit, Aita,
zure ontasuna honela
hobeki agertzen baita.
Zure indar, jakituria
lau haizetara atera;
herriz herri joango naiz
munduari esatera
eder, gozo eta haundi
zarela era batera.
Nire emaztearen bila
noranahi naiz ni joango
eta haren neke-minak
nik neuk ditut eramango;
eta hura bizi dadin
herioa dut jasango,
eta idoitik jareinez
zerorri dizut emango.

8.º

Prosigue

Entonces llamó a un arcángel
que Sant Gabriel se decía,
y enviolo a una doncella
que se llamaba María,

de cuyo consentimiento
el misterio se hacía;
en la cual la Trinidad
de carne al Verbo vestía;
y aunque tres hacen la obra,
en el uno se hacía;
y quedó el Verbo encarnado
en el vientre de María.

Y el que tenía sólo Padre,
ya también Madre tenía,
aunque no como cualquiera
que de varón concebía,
que de las entrañas de ella
él su carne recibía;
por lo cual Hijo de Dios
y de el hombre se decía.

8

Jarraipena

Orduan hots egin zion
goiaingeru Gabirel-i
eta Maria zeritzan
birjinagana bidali.

Honen baietzari esker
burutu zen misterio;
Trinitateak Hitzari
haragi ematen dio;
hiruk egin zuten lana,
baten bidez, horraitio;
eta Hitza sortua zen
Maria zela medio.

Lehen Aita soilik zuenak
Ama ere badu jadanik;
ez, ordea, beste edonor
bezala sortu izanik;
haren erraien barnean
gorputz hartuz harengandik;
Jainko Seme-gizaseme
deitura du horregatik.

9.º

9

Del nacimiento

Ya que era llegado el tiempo
 en que de nacer había,
 así como desposado
 de su tálamo salía
 abrazado con su esposa,
 que en sus brazos la traía;

al cual la graciosa Madre
 en un pesebre ponía
 entre unos animales
 que a la sazón allí había.

Los hombres decían cantares,
 los ángeles melodía,
 festejando el desposorio
 que entre tales dos había.

Pero Dios en el pesebre
 allí lloraba y gemía;
 que eran joyas que la esposa
 al desposorio traía.

Y la Madre estaba en pasmo
 de que tal trueque veía:
 el llano de el hombre en Dios,
 y en el hombre la alegría;
 lo cual de el uno y de el otro
 tan ajeno ser solía.

Jaiotza

Jaio behar zueneko
 unea heldu zenez gero,
 ezkonberritan irten zen
 bere ezkonohetik txairo,
 besoetan zekarrela
 emaztea maitekiro.

Ama dohatsuak zuen
 eratzan bertako askan.
 Aberre mantsok ere
 hantxe ondoan zeduzkan.

Gizakiak euren kantuz,
 aingeruak doinu-saioz
 bien ezteiak ospatzen
 ari ziren bozkarioz.

Baina Jainkoak sehaskan
 negar eta intziriak;
 haiek ziren emazteak
 zekartzan ezkontsariak.

Eta Ama harri eta zur
 trukea ikusirikan:
 Jainkoa negar-intziriz,
 gizakia poz-ertzitan,
 berez bestela gertatzen
 baitzen beti haien baitan.

VII

[ROMANCE SOBRE EL SALMO
«SUPER FLUMINA
BABYLONIS»]*

Otro [Romance] de el mismo que va
por «Super flumina Babylonis»

Encima de las corrientes
que en Babilonia hallaba,
allí me senté llorando,
allí la tierra regaba,
acordándome de ti,
¡oh Sión!, a quien amaba.
Era dulce tu memoria,
y con ella más lloraba.
Dejé los trajes de fiesta,
los de trabajo tomaba,
y colgué en los verdes sauces
la música que llevaba,
poniéndola en esperanza
de aquello que en ti esperaba.

Allí me hirió el amor,
y el corazón me sacaba.
Díjeme que me matase,
pues de tal suerte llagaba.
Yo me metía en su fuego,
sabiendo que me abrasaba,
desculpando al avecica
que en el fuego se acababa.
Estábame en mí muriendo,
y en ti solo respiraba.
En mí por ti me moría,
y por ti resucitaba,
que la memoria de ti
daba vida y la quitaba¹.

* Luis Baraiazarrak itzulia. Argitaratu gabe.

Esk. S. [226.] orr.

Toledo-ko espetxean, 1578.ean (137. salmoa parafraseatuz) eginiko olerkia.

¹ Esk. G-n lerro hauek gehitzen dira:

Móríame por morirme
y mi vida me mataba,
porque ella perseverando
de tu vista me privaba.

VII

[ERROMANTZEA «SUPER
FLUMINA BABYLONIS»
SALMUAZ]*

Babiloniako ibai
ertzean eseri nintzen,
hantxe negarrari eman
eta lurra malkoz urtzen
hain maite zintudan, Sion!
zutaz oroitu bainintzen.
Zure oroitzapen gozoak
ninduen anitz samintzen.
Jaietako soinekoen
ordez lanekoak jantzi,
sarats hezetan zintzilik
kitarak nituen utzi,
gogoari zugandiko
itxaropenean eutsi(z).

Han bihotza urraturik,
maiteminak jo ondoren.
Hil nintzala esan nion,
min gaitzez jo baininduen.
Jakín arren kiskalia
behar nuela nik izan,
haren sutara nindoan
hegastiño baten gisan.
Neugan hiltzen ari nintzen;
arnasa nuen zugandik,
zugatik neugan hil eta
berriro biztu zugatik;
bizia nahiz heriotza
baita zure oroipenetik¹.

Hiltzearren hiltzen nintzen;
biziak ninduen hiltzen,
zu ikusteko oztopoa
hartan irautea baitzen.

Gozábanse los extraños
entre quien cautivo estaba².

Preguntábanme cantares
de lo que en Sión cantaba:
—Canta de Sión un himno;
veamos cómo sonaba.
—Decid, ¿cómo en tierra ajena,
donde por Sión lloraba,
cantaré yo el alegría
que en Sión se me quedaba?;

echaría la en olvido
si en la ajena me gozaba.
Con mi paladar se junte
la lengua con que hablaba,
si de ti yo me olvidare
en la tierra do moraba.

¡Sión, por los verdes ramos
que Babilonia me daba,
de mí se olvide mi diestra,
que es lo que en ti más amaba,
si de ti no me acordare,
en lo que más me gozaba,
y si yo tuviere fiesta
y sin ti la festejaba!

¡Oh hija de Babilonia,
mísera y desventurada!
Bienaventurado era
aquel en quien confiaba,
que te ha de dar el castigo
que de tu mano llevaba;
y juntará sus pequeños
y a mí, porque en ti lloraba
a la piedra, que era Cristo,
por el cual yo te dejaba.

Mende ninduten arrotzak
biziki ziren alaitzen².

Siongo kantaz galdezka
niregana etortzea:
—Kanta Siongo eresi
ea nolakoak diren.
—Nola kanta atzerrian,
Siongatit bainengoen
malkoz, han poza izanik,
nola poz nintekte hemen?

Hartaz nintzateke ahantziko
atzerrian poz banendi;
mintzatzeko nuen mihia
ahosabaian itsats bedi,
nonnahi nagoela ere,
zutaz ahanztea baledi.

Sion, Babiloniako
erramu berdeengatik,
zugan maiteen izanik,
ene eskuina ahantz bekik,
zure oroipen ezitia
baldin banu nik galdurik
eta baldin jai egingo
banu alai zu gabarik!

Babiloniako alaba,
gaxoa, dohakabea!
Dohatsu hura, harengan
jarri bainuen fedea;
zugandik nuen zigorra;
harengandik zuk zeurea.
Bere txikiak eta ni,
zugan bainengon negarrez,
Kristo harrian bilduko,
nik zu utzirik betiko
hartaz jabetu beharrez!

² Esk. G-n lerro hauek gehitzen dira:
Miraba cómo no vían
que el gozo les engañaba.

Harrigarri oharkabe
poz-saretan erortzea.

VIII

[ENTREME DONDE NO SUPE]*

**Coplas del mismo [autor] hechas
sobre un éxtasis de harta
contemplación**

Entréme donde no supe,
y quedéme no sabiendo,
toda ciencia trascendiendo.

- 1 Yo no supe dónde entraba,
pero, cuando allí me vi,
sin saber dónde estaba,
grandes cosas entendí;
no diré lo que sentí,
que me quedé no sabiendo,
toda ciencia trascendiendo.
- 2 De paz y de piedad
era la ciencia perfecta,
en profunda soledad,
entendida vía recta;
era cosa tan secreta,
que me quedé balbuciendo,
toda ciencia trascendiendo.
- 3 Estaba tan embebido,
tan absorto y ajenado,
que se quedó mi sentido
de todo sentir privado;
y el espíritu dotado
de un entender no entendiendo,
toda ciencia trascendiendo.

VIII

[EZ-EZAGUNERA EGIN NUN]*

**Otoitz aundiko zentzu-galtzeaz
egindako koplak***

Ez-ezagunera egin nun,
ta jakinge geldi nintzan,
jakite oro gainduz.

Enekian nora nintzan,
bañan ara ninduzun,
eta nun nengoen jakiñ ezik
gauz aundi jakin nitun;
ezin dut esan an senti nuna,
jakinge geldi bai nintzan,
jakite oro gainduz.

Pake ta errukizko
jakite betea zenun,
bakartasun beltzean,
bide zutari buruz;
gauz ain ixilla izanik,
totel geldi nintzan,
jakite oro gainduz.

Ain txirika nengoen,
ain txundi ta zurrun,
nere zentzumenetik
erabat besterenduz;
eta nere gogamena
adi-eziñez adidun,
jakite oro gainduz.

* *Musika ixilla*, 224-229 (Gaztelu).

Esk. S. [212.] orr.

Data ezezaguneko olerkia; 1574. urte inguruan egina izan daiteke.

- 4 El que allí llega de vero,
de sí mismo desfallece;
cuanto sabía primero,
mucho bajo le parece;
y su ciencia tanto crece,
que se queda no sabiendo,
toda ciencia trascendiendo.
- 5 Quanto más alto se sube,
tanto menos entendía,
que es la tenebrosa nube
que a la noche esclarecía;
por eso quien la sabía
queda siempre no sabiendo,
toda ciencia trascendiendo.
- 6 Este saber no sabiendo
es de tan alto poder,
que los sabios arguyendo
jamás lo pueden vencer;
que no llega su saber
a no entender entendiendo,
toda ciencia trascendiendo.
- 7 Y es de tan alta excelencia
aqueste sumo saber,
que no hay facultad ni ciencia
que le puedan emprender;
quien se supiere vencer
con un no saber sabiendo,
irá siempre trascendiendo.
- 8 Y si lo queréis oír,
consiste esta suma ciencia
en un subido sentir
de la divinal Esencia;
es obra de su clemencia
hacer quedar no entendiendo,
toda ciencia trascendiendo.
- Egi-egiz araña dana
beretik piran dagozu;
lendik jakiñ izana
ain zatar dirudizu;
ta jakitez ain geituz doa,
jakinge geldi dalarik,
jakite oro gainduz.
- Zenbat gorago egin,
ainbat gutxigo adi nun
gaua argitzen duen
odeia zala illun;
beraz jakitun zana
jakinge geldi oi da,
jakite oro gainduz.
- Jakite ez-jakiñ au
ain da ere altsu,
jakitunak adieraziz
ezin dutela gallendu;
euren jakitea ezтитеk
adieza aditzera eldu,
jakite oro gainduz.
- Jakite goren au ere
ainbateko duzu,
jakite-almenik ezta ura
dezakena burutu;
norbait ezi baledi
ez-jakiña jakiteaz,
joanen beti gainduz.
- Ta entzun nai baduzue,
jainkozko Izateaz
gorenik sentitzea da
jakite guzizko au;
aren errukiz baita
adige geldiraztea,
jakite oro gainduz.

IX

[VIVO SIN VIVIR EN MI]*

Coplas del alma que pena por ver a Dios, de el mismo autor

Vivo sin vivir en mí
y de tal manera espero,
que muero porque no muero.

- 1 En mí yo no vivo ya,
y sin Dios vivir no puedo;
pues sin él y sin mí quedo,
este vivir ¿qué será?
Mil muertes se me hará,
pues mi misma vida espero,
muriendo porque no muero.
- 2 Esta vida que yo vivo
es privación de vivir;
y así es continuo morir
hasta que viva contigo;
oye, mi Dios, lo que digo:
que esta vida no la quiero;
que muero porque no muero.
- 3 Estando absente de ti,
¿qué vida puedo tener,
sino muerte padecer,
la mayor que nunca vi?
Lástima tengo de mí,
pues de suerte persevero,
que muero porque no muero.

IX

[NIGAN BIZI EZIK BIZI NAIZ]*

Animaren koplak, Jainkoa ikustez miñez dagolako

Nigan bizi ezik bizi naiz,
eta alako ustea izanik,
iltzar bainago eziñ illez.

Yadanik ez naiz nigan bizi,
ta enaiteke bizi Jainko gabe;
bera gabe, ni gabe, geldi banaiz,
bizitz au zer diteke?
Eun aldiz iltzea zaidake,
nere bizia bera itxaro baitut,
iltzar bainago eziñ illez.

Bizi dudan bizitz au
biziaz peitzea daike,
ta beti iltzen joatea
Zurekin bizi arte;
entzuizu, ene Jaun, diñotana:
ez baitut nai bizitz au,
iltzar bainago eziñ illez.

Zer bizirik duket
Zugandik alde egonik,
iñoiz lakorik ikusi ez dudan
iltzea jasan baizik?
Erruki dut neroni,
doi-doian iraun dudala,
iltzar bainago eziñ illez.

* *Musika ixilla*, 230-233 (Gaztelu).

Esk. S. [213-215.] orr.

Baliteke, Avilan, 1572-1577. urteen tartean egina izatea.

Bostgarren eta seigarren bertsoak L. Akesolok itzuliak dira; *Musika ixilla*-n bertso biok ez dira agiri.

- 4 El pez que del agua sale
aun de alivio no caresce,
que en la muerte que padesce
al fin la muerte le vale.
¿Qué muerte habrá que se iguale
a mi vivir lastimero,
pues si más vivo más muero?
- 5 Cuando me pienso aliviar
de verte en el Sacramento,
háceme más sentimiento
el no te poder gozar;
todo es para más penar,
por no verte como quiero,
y muero porque no muero.
- 6 Y si me gozo, Señor,
con esperanza de verte,
en ver que puedo perderte
se me dobla mi dolor;
viviendo en tanto pavor
y esperando como espero,
muérome porque no muero.
- 7 Sácame de aquesta muerte,
mi Dios, y dame la vida;
no me tengas impedida
en este lazo tan fuerte;
mira que peno por verte,
y mi mal es tan entero,
que muero porque no muero.
- 8 Lloraré mi muerte ya,
y lamentaré mi vida
en tanto que detenida
por mis pecados está.
¡Oh mi Dios!, ¿cuándo será
cuando yo diga de vero:
vivo ya porque no muero?
- Uretik kanpo arraiak
ba du aringallu,
jasaiten dun erioan
iltzea lortzen baitu.
Zer eriorik nere bizi
minduri onen berdiñik,
zenbat bizi ainbat illik?
- Aldaretan Zu ikusirik
pozik badut nabaitzen,
Zu osoz ez gozatzeak
miña dit miñagotzen.
Bekoz beko zu ikus arte
bizi bear ni miñez,
iltzear il eziñez.
- Pozik badut noizbait gero
Zu ikusteko uste ederrez,
miña zait areagotzen
Zu gal zaitzadan beldurrez;
olako ikaretan biziz,
ta olako uste onez.
iltzen naiz il eziñez.
- Ken nazazu erio onetik,
ene Jaun, idazu bizi;
lakio ain gogor ontan
ez nazazula utzi;
Zu ikus-guraz nago miñez,
t'ain da guzizko nere gaitza,
iltzear bainago eziñ illez.
- Erruki duket orain iltzea,
ta nere obenak atxikia
daukaten bitartean,
mingarri zaidake bizia.
Noiz izanen, ene Jainko,
egi-egiz nik esatea:
bizi naiz orain il gabe?

X

[TRAS DE UN AMOROSO LANCE]

Otras [coplas] del mismo autor a lo divino

Tras de un amoroso lance,
y no de esperanza falto,
volé tan alto, tan alto,
que le di a la caza alcance.

- 1 Para que yo alcance diese
a aqueste lance divino,
tanto volar me convino
que de vista me perdiese;
y, con todo, en este trance,
en el vuelo quedé falto;
mas el amor fue tan alto,
que le di a la caza alcance.
- 2 Cuando más alto subía,
deslumbróseme la vista,
y la más fuerte conquista
en oscuro se hacía;
mas por ser de amor el lance,
di un ciego y oscuro salto,
y fui tan alto, tan alto,
que le di a la caza alcance.

X

[MAITEALDI BATEN ONDOREN]

Egille beraren Jainkorako beste zenbait

Maitealdi baten ondoren,
eta ez usterik gabe,
ain gora egiñik, ain gora,
eiza bainun atzeman.

Zerutar mugaldi au
nik atzeman nezan,
begitatik galtzeraño
eitea zegokidan;
alaz ere, muga ontan,
uts egin nun egan;
baña maitea ain garai izanik,
eiza bainun atzeman.

Zenbat eta gorago egin,
begiak txundi nituan,
garaite gogorrena ere
illunez gerta oi zan;
baña maite-muga zalako,
itsuka jausi nintzan,
t'ain gora egiñik, ain gora,
eiza bainun atzeman.

* *Musika ixilla*, 234-237 (Gaztelu).

Esk. S. [215-216.] orr.

Data ezezaguneko olerkia; 1584-1585. urteen tartean egina izan daiteke.

3 Cuanto más alto llegaba
de este lance tan subido,
tanto más bajo y rendido
y abatido me hallaba;
dije: no habrá quien alcance;
y abatíme tanto, tanto,
que fui tan alto, tan alto,
que le di a la caza alcance.

4 Por una extraña manera
mil vuelos pasé de un vuelo,
porque esperanza de cielo
tanto alcanza cuanto espera;
esperé sólo ese lance,
y en esperar no fui falto,
pues fui tan alto, tan alto,
que le dí a la caza alcance.

Zenbat eta gorago eldu
ekite ain garai ontan,
ainbat berago negian;
ta eskurago nintzan;
«iritxi eziña duk», esanda,
gero ta berago niñoan;
t'ain gora egiñik, ain gora,
eiza bainun atzeman.

Ain era arrigarriz eun egada
igaro nitun batean,
zerutar usteak zenbat itxaro
ainbat baitu eskutan;
muga bakar onen zai egonda,
enintzan uts irten ustean;
ain gora egiñik, ain gora,
eiza bainun atzeman.

XI

[SIN ARRIMO Y CON ARRIMO]*

Glosa del mismo

Sin arrimo y con arrimo,
sin luz y a oscuras viviendo,
todo me voy consumiendo.

- 1 Mi alma está desasida
de toda cosa criada
y sobre sí levantada,
y en una sabrosa vida
sólo en su Dios arrimada.
Por eso ya se dirá
la cosa que más estimo,
que mi alma se ve ya
sin arrimo y con arrimo.
- 2 Y, aunque tinieblas padezco
en esta vida mortal,
no es tan crecido mi mal,
porque, si de luz carezco,
tengo vida celestiak,
porque el amor [da] tal vida
cuando más ciego va siendo,
que tiene al alma rendida,
sin luz y a oscuras viviendo.
- 3 Hace tal obra el amor
después que le conocí,
que, si hay bien o mal en mí,
todo lo hace de un sabor
y al alma transforma en sí;
y así, en su llama sabrosa,
la cual en mí estoy sintiendo,
aprieta, sin quedar cosa,
todo me voy consumiendo.

XI

[ABERIK EZ TA ABERIK BAI]*

Egille beraren «Glosa»

Aberik ez ta aberik bai,
argi barik, illunetan,
banoa urtuz benetan.

Nire gogoak ez dau nai
izakitan zorionik.
eta neurez gain igonik,
bizi gozoena dot, bai,
Jainkoa soil dodala abe.
Ortik igarriko dabe
zer dodan naien nik orai,
neure burua ikustean
aberek ez ta aberik bai.

Illunez joatan arren
emengo bizi ilkorra,
ez jat ori ain nekorra,
argirik ez dodan arren
zeru-bizia dodala.
Maitasunak orixe dau:
itsuago dozunetan
azpirago zaukazala
argi barik ta illunetan.

Au maitasunaren lana!
Bein ezagutu badozu,
ona dala, txarra dala,
dana gozo eiten deutsu
eta zeu bera lakotu.
Alan, aren gar ez tietan,
ni joten naberen onetan,
arin, pitsik itxi barik,
banoa urtuz benetan.

* Lino Akesolok itzulia. Argitaratu gabe.

Esk. J. [314-315.] orr.

Data ezezaguneko olerkia; 1584-1585. urteen tartean egin izan daiteke.

XII

[POR TODA LA HERMOSURA]*

Glosa a lo divino, del mismo autor

Por toda la hermosura
nunca yo me perderé,
sino por un no sé qué
que se alcanza por ventura.

- 1 Sabor de bien que es finito,
lo más que puede llegar
es cansar el apetito
y estragar el paladar;
y así, por toda dulzura
nunca yo me perderé
sino por un no sé qué,
que se halla por ventura.
- 2 El corazón generoso
nunca cura de parar
donde se puede pasar,
sino en más dificultoso;
nada le causa hartura,
y sube tanto su fe,
que gusta de un no sé qué
que se halla por ventura.
- 3 El que de amor adolesce,
de el divino ser tocado,
tiene el gusto tan trocado
que a los gustos desfalle[s]ce;
como el que con calentura
fastidia el manjar que ve,
y apetece uno sé qué
que se halla por ventura.

XII

[EDOZEIN EDERREN JARRAI]*

Egille berak «Jainkozko» biurtua

Edozein ederren jarrai
ez nabilke ni ñoiz deslai,
baiña Jainkoz izan oi dan
ez dakit zeren billa bai.

On igeskorren gozoa
ezin izan bestetako
ao gozoa galdu ta
gogaikarri gelditzeko.
Beraz atsegiñen billa
ez naiz ibilliko deslai,
Jainkoz aurkitu daiteken
atsegiñaren billa, bai.

Biotz andiak ez daki
beti batean egoten,
aurrera jotetik badau,
zailletara dau joten;
ez da asetzen edozertaz,
ta fedez ain gora doa
ta alan Jainkoz aurkitzen dan
zera irabazi daroa.

Jainkoak bein ikuturik
Aren miñez dabillana,
ez dabil gozoen billa,
aldaturik dago dana;
Sukardunaren antzera,
iguindurik lengo janez,
Jainkozko zer ori baiño
besterik goza eziñez.

* Lino Akesolok itzulia. Argitaratu gabe.

Esk. J. (315-318 orr.).

Olerki hau 1585. urte inguruan egina izan daiteke.

- 4 No os maravilléis de aquesto,
que el gusto se quede tal,
porque es la causa del mal
ajena de todo el resto;
y así toda criatura
enajenada se ve,
y gusta de un no sé qué
que se halla por ventura.
- 5 Que estando la voluntad
de divinidad tocada,
no puede quedar pagada
sino con divinidad;
mas, por ser tal su hermosura
que sólo se ve por fe,
gústala en un no sé qué
que se halla por ventura.
- 6 Pues de tal enamorado
decidme si habréis dolor,
pues que no tiene sabor
entre todo lo criado;
solo, sin forma y figura,
sin hallar arrimo y pie,
gustando allá un no sé qué
que se halla por ventura.
- 7 No penséis que el interior,
que es de mucha más valía,
halla gozo y alegría
en lo que acá da sabor;
mas sobre toda hermosura,
y lo que es y será y fue,
gusta de allá un no sé qué
que se halla por ventura.
- 8 Más emplea su cuidado
quien se quiere aventajar
en lo que está por ganar
que en lo que tiene ganado;
y así, para más altura,
yo siempre me inclinaré
sobre todo a un no sé qué
que se halla por ventura.
- Iñor ez bedi arritu
aldatze ori dala-ta,
gaixo orren Eragillea
guztien gaineko da-ta;
alan, edozein izaki
Aren mende da geratzen,
ta Jainkoz dauan zer ori
baiño ez daki gozatzen.
- Jainkoaren ikutuak
biotza joa izan bada,
ezin ezertaz asetu
Jainkozko izatez ezpada,
baiña aren ederra fedez
baiño ez danez asmatzen,
Jainkoz izan oi dan eran
baiño ez dau ak gozatzen.
- Maitemindu ori zelan
izan iñork errukitan,
pozik ez ba dau aurkitzen
ezelango izakitan,
soil, eta antzi-irudi barik,
ezertxori ez dautsala,
Jainkoz datorkion zera
artzen ba dau artu-ala?
- Gogo-barruak, balio
bikainagoko izanik,
ez uste emengo gozotan
atsegin artzen dauanik;
dan, izan eta izango dan
eder guztiez gorago,
andik artu oi dau Jainkoz
dan zer ori gainezkago.
- Geiago gura dauana
irabazteko ez dago
irabazitako baiño
askoz arduratuago.
Beraz, gorago igoen guraz,
beti izango dot joera,
Jainkoz aurkitzekoa dan
zer ori lenik lortzera.

9 Por lo que por el sentido
puede acá comprenderse
y todo lo que entenderse,
aunque sea muy subido,
ni por gracia y hermosura,
yo nunca me perderé,
sino por un no sé qué
que se halla por ventura.

Ez dot nai sentzunen bidez
lurreon ulertzekorik,
ez, garaiena izan arren,
buruz antz emotekorik;
eder ta jas onen billa
iñoz ez nabilke deslai,
baiña Jainkoz letorkidan
ez dakik zeren billa, bai.

[NAVIDEÑA]*

Del Verbo divino
la Virgen preñada
viene de camino;
¡si le dais posada!

[GABONETAKOA]*

Jainko-Itzaz orra
Ama Birjiña aurdun:
bidez dator, ea
ostaturik dozun.

[SUMA DE LA PERFECCION]**

Olvido de lo criado;
memoria del Criador;
atención a lo interior;
y estarse amando al Amado.

[ONBIDEA LABUR]**

Izakiak aitzu eta
Jainkoa gogoratu,
egon barrura adi eta
beti Maitea maitatu.

* Lino Akesolok itzulia. Argitaratu gabe.

Esk. 13460, 127.orr. Madrideo Biblioteka Nazionalekoa.

Galdutako Gabon-kantaren baten leloa dirudi. Santuak, Abendu eta Gabon-jaietarako Gabon-kantak egin ohi zituen noiz behinka komentu barruko elizinguruetan abesteko.

** Lino Akesolok itzulia. Argitaratu gabe.

Esk. 374, 191.orr. Madrideo Biblioteka Nazionalekoa.

Beti Gurutzeko Joan Doneak egintzat jo izan da. Lehen aldiz 1667.ean argitaratua izan zen.